

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2012ko urriaren 18a. IX. urtea. 2.418. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Hamar proposamenen artetik aterako da Zizurkilgo armarri berria

Bi hilabete barru zizurkildarrek armarri berria izango dute; hogei pertsonako lantalde baten, Aranzadi elkartearen eta herritarren 200dik gora ekarpen hartu dituzte kontuan

Teodoro Hernandorena kultur taldeak bultzatu du, eta Joxin Azkue kidearen esanetan «gure historia kontuan hartuko duena, modernoa eta funtzionala» izatea nahi dute ⁰⁷



Zizurkilgo armarri berriak goian ikusi daitezkeen lanetako hainbat elementu izan ditzake. HITZA

Mosaikoz osatutako mural handiena, Bidegoianen egina

Caracasen jarri dute eta Reviglass enpresak sortutako beirazko produktuez egindakoa da ⁰⁴

Aiert Beobide Haatik dantza taldeko kidea

«Bertsolarien estetika dantzara ekarri dugu»

‘Errimak oinetan’ eskainiko du, Tolosan ⁰⁵


Poxpolo ta Konpainiak irudiz aldatzeko lehiaketa bat antolatu du

Lanak urriak 31 arte jasoko dituzte ⁰²

Tolosa Txukun Gipuzkoa mailako plataforma batean sartu da

Beste 19 herrikin ariko da hondakinei buruz ⁰²

U-21 Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeak



Jarraitu igandeko hauteskondeen emaitzak Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzaren webgunean.

Egunkariak hauteskunde eguneko jarraipena egingo du, herriz herriko emaitzak jasoko ditu eta alderdi politikoen erreakzioak bilduko ditu

Adi beraz, webgunera: tolosaldea@hitza.info

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com



Tolosa Txukunek bat egin du beste 19 herritako taldeekin

Atez ateko zabor bilketa sistemaren aurka elkartu dira, Gipuzkoako 20 herritako biztanleak

Itzea Urkizu Tolosa

Beste hemeretzi herritako plataformekin batera, atez ateko zabor bilketa sistemaren aurkako Gipuzkoako koordinakundearekin bat egin du Tolosa Txukun plataformak. «Bilduko 34 alkatek, inori iritzirik eskatu gabe inposatu nahi duten sistemaren aurka egin nahi dugu», azaldu zuen Patxi Amantegi ordezkari tolosarrak, atzoko aurkezpenean.

Amantegi, plataforma hauek guztiak beren gisara sortu direla nabarmendu zuen, eta Bildu agintean dagoen 20 herri horietan, «70.000 sinadura baino gehiago» jaso dituztela gaikako bilkera sistemaren aurka.

Era berean, beren nahia «koalizio abertzaleari, gipuzkoarren iritzia eta nahia errespetatzea» eskatzea dela esan zuen, «70.000 herritarren iritzia ezin baita gutxietsi», gaineratu zuen. Koordi-

nakunde hauen guztien izaera «ukatu» dutela ere salatu zuten herritarrek: «Herriari hitza eman eta eurek hitzemandakoa betetzetik oso urrun, kontrakoa egiten ari dira». Amantegik, horrela, alkate hauek ez dietela entzuten eta erantzuten salatu zuen, eta «ez dugu utziko herritarrek gutxiesten», nabarmendu.

Beren helburuei dagokienez, hasiera batean behintzat, ez dute kontsulta bat antolatzea lortu nahi. Dena den, herritarrek erabaki honen aurrean parte hartzea nahi dute: «Atez ateko bilketa sistemaren aurka zenbat herritar dauden jakin nahi dugu, eta honekin batera, informazioa lortu eta kontsulta baten antza duen zerbaitekin egin daitekeen jakin». Honen harira, beraz, Patxi Amantegi onartu du, «beharrezkoa ez den arren», Gipuzkoako Batzar Nagusietan erreferenduma antolatzeko egitasmo politikoa babestuko lukezela.

Azkenik, plataforma hauek guztiak EAJrekin lotura zuzenik ez dutela argitu nahi izan zuten: «EAJri kanpaina egiten ari garela salatzen dute, baina alderdi guztietako herritarrek daude taldeetan».

Poxpolo ta Konpainia, irudi berri baten bila

I. Urkizu Tolosa

Poxpolo ta Konpainia pailazo taldea orain 12 urte hasi zen lanean, eta irudi berri bat izateko garaia dela pentsatu du.

Herrian diseinatzaile eta marrazkigile asko dagoela ohartuta, herritarren artean lehiaketa bat egingo dute eta irabazleak, irudi berriaren sortzailea izateaz gain, 400 euro eskuratuko ditu. Partai-

deek 16 urte baino gehiago izan behar dute; hiru proposamen bidali ahal ditzake gehienez; eta lanean Poxpolo atera behar da eta baita «Poxpolo ta Konpainia» esaldia ere.

Lanak bidaltzeko azken eguna urriak 31 izango da eta poxpolutamokolo@gmail.com helbidera bidali behar dira.

Erabakia azaroaren 9an jakinaraziko dute.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irudia Tolosa



OMENALDI BEROA

GALek erail zituen Joxi Zabala eta Joxean Lasa tolosarrak, 1983ko urriaren 15an, bahitu eta torturatu ondoren. 29. urteurrenean, eskualdeko 60 herritar inguru elkartu ziren Benta Handiko monolitaren inguruan, omenaldi beroa egiteko. Txalaparta, bertsolariak, dantzariak, ekitaldi politikoa eta lore eskaintzak osatu zuten ekitaldia, urtero legez, bi gazteak omentzeko eta hauekin gertatua salatzen. HITZA

Ezkurratik Goizuetara oinez, Alpinokoekin

Mendi irteera igandean izango da, eta larunbaterako rolleski igoera antolatu du taldeak

I. Urkizu Tolosa

Alpino Uzturre Elkartek mendi irteera antolatu du Ezkurratik Goizuetara, iganderako.

Erakurri (1.142 m.) eta Iruñarri (1.051 m.) mendiak igoko dituzte, eta iraupena 7 ordukoa izango da.

Autobusa 07:00etan irtengo da San Frantziskotik, eta izena emateko 943 65 27 89 telefonora deitu,

edo alpinouzturre@hotmail.com helbidera idatzi beharko da. Bzikideek 11 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek 13 euro.

Aipatzekoa da, autobusa 17:30ean iritsiko dela Tolosara, hauteskunde eguna dela eta, bozkatzeko aukera izateko.

XII. Rolleski igoera, etzi

Larunbat honetan, Hernialdeko XII. Rolleski igoera antolatuko du Alpinok.

16:00etan hasiko da proba, eta patinatzaile eran nahiz klasiko eran parte hartu ahal izango da. Izena emateko, 685 77 65 04ra deitu edo alpinouzturre@begira.com helbidera idatzi behar da.

↓ Iragarki laburrak

LANESKAINTZAK

Gidariak. B gida baimenetik hasita, dokumentazio publiko banatzeko langile bila gabilta. Interesatuek, deitu 654 051778 telefono zenbakira.

Mantenuerako pertsonala.

Obra publiko nahiz zerbitzu orokorretarako langile bila gabilta. Interesa duen edonork 654 051 778 telefono zenbakira deitu beharko du informazio gehiago eskuratzeko.

Gutuna

Tolosaldeko zaborrak

Gai kezkarria eta herritarrok oso kezkatu jartzen gaituena da. Momentuz badirudi ia 12.000 sinadura izenpetu direla atez atekoaren aurka gure bailaran. Gure hainbat herritako alkateak mutu eta isilik daude. Ez dute ezer esaten. Kezkarria!

Gipuzkoako lau herritan atez atekoak martxan jarri dute. Orokorri herriari galdeketa egin gabe. Horrelako zerbaite egingo omen dute Ibarra, Villabonan, Zizurkilan, Iruan, Anoetan, eta nork daki, agian Tolosan ere bai? Hemen gakoak birziklatze tasak hobetzea eta handitzea da, zabor organikoak gehiago biltzea eta horretarako gure udalerriek bosgarren edukiontzia ipintzea. Errauste planta ez badugu jarritzen, orduan zabortegiak berriki beharko ditugu, eta hau bai ingurumen aldetik eta baita Europako plan orokorretatik ere oso bestelakoa da. Ez da onartzen.

Nik dakidanez errauste plantak zabortegiak baino konponbide hobeagoa du. Hemen gakoak dira: errauste planta txikiagoak izatea (Europako hainbat hiri nagusitan bezala); ondoan aurrez tratatzeko planta bat eraikitzea eta konpostatze maila igotzea.

Orain arte bilketarako ditugun zabor edukiontzia aprobetxatu behar dira, gainera gaur arte egindako inbertsioak ezin dira hala moduz galdu. Ni neuz atekoaren alde ez nago. Iruditzen zait ezin dela era autoritarioan ezarri, herriari entzun gabe eta galdeketa egin gabe. Esku hartzea, partizipazioa, batzarrak... oso hitz 'ponpoxoak' izan daitezke, baina azpian demokrazia gehiago erabiltzen dela esan nahi ote du? Ez ote dira hitz hauen esanahia praktikan jarri behar? Zer egiten du Tolosaldeko udalari gehienak?

Iruditzen zait erabaki sakon, serio eta garrantzitsu hau ezin dela inposaketan eta sekretutasunean oinarritu. Noski heziketa eta kontzientziazio kanpainak eta ekitaldiak gehiago bultzatu behar dira, batez ere herritarrok gehiago birzikla dezagun. Zertan daude Tolosaldeko alkateak?

Laburbilduz: Zikinatzea, osasungaitzagoa eta askoz deserosoagoa da; ez dut zabor turismo nahi; askoz ere garestiagoa da; antiestetikoa eta txerritgia ematen du; intimitatea ez du babesten; 5. edukiontzia konpostatze maila igotzen du, eta merkeagoa, garbiagoa eta erosoagoa da; zaborren kudeaketaren arazoa atez atekoak ez du konpontzen, eta atzera pausoa da; gainezartzean edo inposizioan oinarritutako sistema da; ez dut ezer herriaren bizkar egitea nahi, eta herriari galdeketa egin gabe.

■ **Joxe Agustin Arrieta Egiguren.**

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak →**Itzea Urkizu** Donostia

Bakartxo Tejeria (Larraul, 1971) EAJren zerrendako bigarren hautagaia da, eta beraz, Legebiltzarrerako lehendakari izan daiteke. Villabonako alkate izan zen, eta Donostian bizi da gaur egun.

Badaramatzazu urte batzuk politikagintzan.

Hiru legegaditan egon naiz aurrez, legebiltzarkide moduan. Aurreko aldi guztiak zuzenduz gobernatzen eta une gorenak izan ziren: estatutu berria onartzea, esaterako. Legealdi honetan, berriz, oposizioan egon gara gobernu dudu batekin, eta guk eman dugu aurrera gobernuaren lana.

Nola baloratuko zenuke PSE-EEren agintaldia, beraz?

Egon ez den gobernu izan da. PPrekin hitzarmena egin zuten, eta gobernu hartu zutenean, biak hain alderdi derberdinak izanda, ez ziren gai izan legebiltzarrerako gobernu programa bat ekartzeko. Herrenka eta norabiderik gabe ibili dira. Marketingaren gobernu izan da: hau egin dutela esan eta egin gabe utzi.

Legebiltzarrerako lehendakari suertatuz gero, nola egingo diozu aurre erronka horri?

Legebiltzarrerako lehendakaria izatea egokitzen bazait, ilusio handiz ekingo diot lanari, legebiltzar osoa izango delako, aspaldiko urteotan ez bezala. Aukera izango dugu, denon artean, gauzak erabakitzeko eta eztabaidatzeko. Lanerako grinaz nago, eta ea legealdi oparoa izaten den.

Zein neurri proposatuko ditu EAJk krisiaren ondorioei aurre egiteko?

Argi daukagu ekonomia aktibatu egin behar dela. Oparotasunean bizi garenean, gastu gehiago egiten dira, eta diru gutxi dagoenean hori asko murriztu behar da. Murrizketak, ordea, ez dira konponbidea. Denok lana baldin badaukagu, denok daukagu kontsumitzaile zeko dirua. Eta poliki-poliki,



L. URKIZU

Bakartxo Tejeria ▶ EAJko hautagaia

Larraulen jaiotakoa eta Villabonan hezitakoa da Bakartxo Tejeria, eta igandeko hauteskundeetan, Eusko Legebiltzarrerako lehendakari izateko hautagaia izango da, EAJ alderdiarekin.

«Ez naiz inposizioaren aldekoa; norberak ikusi behar du euskaraz egin edo ez»

ekonomiaren gurrpil hau geratzen ari da. Une bakoitzean ikusi behar da zein neurri behar diren, baina ekonomia aktibatu behar da. Gehiengoa diren ETEei lagundu behar zaie, finantziarioa behar dute. Finean, lana sortu behar da; horretan asmatu behar da.

Zein iritzi duzu Espainiako Gobernuak ezarritako neurrien aurrean?

Espainiako Gobernuak noraezaren dabil. Europak esku hartuta dauka gobernuak; handik agintzen dietena egiten ari dira. Hartzen ari diren neurriak, ekonomia akti-

tibatuko duten beste neurriak gabe, ez dute balio.

Egoera honetan, AHTa bezalako azpiegiturei lehentasuna emango diezue?

Azpiegitura horiek ados egon izan gara beti, beharrezko ikusten ditugu. Integratu eta beste lurraldeekin lotzen gaitu, eta horrek ere ekonomia berpiztuko du. Mantsoago joan behar duela? Ba halaxe joan beharko du. Lehentasuna jendea duin bizitzea da.

Erraustegia ere zuen helburuetan dagoen beste azpiegitura bat da.

Behar-beharrezkoa da. Gu ados gaude ahal den gutzia birziklatzarekin, baina beti geratuko da hondar bat, eta horrekin ezingo da ezer egin. Urte mordoak darabagu alternatiba guztiei begira. Europan bi gauzak konbinatzen dituzte, eta horri kontra egiten diona, gezurretan ari da. Ahalik eta hondakin gutxienez eraman behar dela erraustegira? Zalantzarik gabe. Baina beti egongo da hondar bat, eta erraustegia behar da.

Tolosaldean, 18.000 sinadura baino**gehiago bildu dituzte osasun zerbitzu publikoaren alde.**

Gu publiko-privatuaren aldekoak gara. Asuncionera joaten den inork zerbitzu ordaintzen du? Klinika pribatua da, baina zerbitzuz publikoa. Erabiltzaileari benetan axola zaiona zerbitzua da; nor ematen duen gutxienezkoa da. Asuncionez, zentro publiko askok eskaintzen ez dituzten zerbitzuak ematen ditu. Egindako inkestetan, emaitzak onak izan dira; zerbitzuaz ez dut inoiz kezarik entzun. Demagogia egiten ari dira kontu honekin.

Nola ikusten duzu Euskal Herriaren independentzia?

Ibarretxeren estatutu berria onartu genuen, eta garbi utzi genuen: herri honek erabaki dezala zer izan nahi duen. Mugariak jarritako daude. Independentzia beste galdera batekin doa: nola eramango dugu aurrera? Batzuek, 35 urtetan, arma bidez defendatu dute independentzia, eta orain esan dute, «modu hau ez da on». Aldarrikatzea oso erraza da, baina gero jakin egin behar da zein pauso eman behar diren, eta inork ez du ezer esaten.

Euskararen normalizazio bidean, zein dira zuen proposamenak?

Kosta egiten zait jendeak euskara aberastasun bat bezala ikusten ez duela ulertzea. Baina ez naiz inposizioaren aldekoa; norberak ikusi behar du euskaraz egin edo ez. Gero eta jende gehiago daki euskaraz. Dakitenez hitz egitea lortu behar da, eta ez dakitenez ikastea. Baina borondatez behar du izan; inposatzen ez da ezer lortzen. Guk inposatzea jarri behar ditugu jendeak euskara ikasteko. **Bide horretan, euskarazko hedabideekin zein paper jokatzeko dute?** Garrantzia dute. Zenbat eta euskarazko hedabide gehiago izan, hobe. Ohitura gehiago behar da. Baina hedabide gehiegi sortzen badira ere, denontzako lekurik ez izatea ez da kontua.



Gutuna

Kalean eta hauteskundeetan EH Bildurekin

Datorren urriaren 21ean, EHBilduk emaitza historikoak lortuko ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. 2009tik hasita greba orokorretan kaleak bete, eskubide demokratikoen aldeko mobilizazioetan parte hartu eta krisi kapitalistaren ondorio larriak sufritzen dituzten ehunka mila langile, gazte, langabetu eta pentsiodunek Euskal Herriko panorama politikoa irauliko dute.

Garrantzia historiko handia dute hauteskunde hauek, une hauetan herritarren gehiengoa, langileak, gazteak, emakumeak

eta etorkinak, frankismoaren aurkako borrokan irabazitako eskubideak galtzen ari baitira. Ezkerreko gehiengo sozial horren zati handi batek, EH Bilduri emango diogu botoa, eskubide demokratiko eta sozialak edozein erasotatik babestuko dituenaren konfiantza; zapalduen benetako ordezkaria izango den esperantzaz.

EH Bilduren zutabe nagusi den ezker abertzalearen militantziaren, eta beren biziaren onena eman dutenen garaipena izango dira urriaren 21eko hauteskunde emaitzak.

Baina bidea ez dago arriskuetatik salbu. Borroka honetan aliatu seguruak ditugu: mundu osoko zapalduak, Raxoiren politika atzerakoen aurka polizia-errepresioari eta borrokan kriminalizazioari aurre eginez estatu espainiarrean mobilizatzen ari diren langile eta gazteak.

Beraiek, Greziako, Portugalgo, Irlandako, mundu arabiarreko eta Amerika Latindarreko zapalduekin batera, gure babesik onena dira askapen sozial eta nazionalaren aldeko borrokan. Eta zapalduen aurrean, beste

barrikadan, burgesia dago; kome- ni zaion bandera erabiltzen du, baina klaseko interesegatik beti elkartuta egongo da.

Horregatik, bide honetan, EAJk eta Confesbask ez dute jokatzeko herriaren, langileen, langabetuen eta gazteen alde. Ez dugu beraiekin elkartu behar, esperientzia historikoak erakusten duen moduan, beti kokatu izan baitira estatuaren eta burgesia espainiarren nahiz frantziarraren ondoan, une erabakigarrietan.

Askapen sozialaren aldeko borroka, eta zapalkuntza nazionalaren aurkakoa, elkarri erabat lotuta daude. Askatasuna, gure herriaren izaera eta nortasuna-

ren errespetua, eta benetako demokrazia nahi baditugu, helburu horiek lortzea oztopatzen diguten eta zapaltzen gaituzten boterea desjabetu behar da: kapitalista euskal herritarrak, espainiarrak, frantziarrak...

Beharrezkoa da udaletxeetako, diputazioetako eta Eusko Legebiltzarrerako posizioetatik, gehiengoaren mobilizazioa, antolatulakuntza edota kontzientzia bultzatzea.

Baita gure indarrak elkartzea ere, Euskal Herri sozialista baten aldeko borrokan, Europako eta munduko Federazio Sozialistaren markoan.

■ **Ibon Artola.** Euskal Herria Sozialistaren izenean.

Intxurreko pilotariek bost partida dituzte Alegian, larunbatean

I. Garcia Landa

Intxurre elkarteko pilotariek bost partida jokatu dituzte asteburuan Alegiako frontoian. Larunbatean izango dira partidak, 16:00etan hasiko den jaialdian. Lehenengo partida Gipuzkoako txapelketakoa izango da, eskuz banaka, 2. urteko infantiletan, eta Intxurre 4 eta Ziotza 2ren artean izango da. Bigarren, txapelketa eta maila berdinean, Intxurre 1 eta Aurrera Saiaz 2 ariko dira elkarren aurka. Hirugarren neurketan, Intxurre 5 eta Aurrera Saiaz 3 ariko dira elkarren aurka, maila eta txapelketa berdinean. Laugarren partidari, eskuz bina-ka kadeteen bigarren mailan, Intxurre eta Añorga 1 ariko dira nor baino nor. Azkenekoan, Gipuzkoako txapelketan, gomazko paletan jubenil mailako neskek ariko dira lehian Hernani 4ren aurka.



Mateo Manaure artista, atzean mural erraldoiaren zati bat duela. HITZA

→ Laburrak

San Silbestre lasterketa antolatzen bilera, gaur

ALEGIA > Aurten, urtearen amaieran, Alegiako III. San Silbestre krosa izango da. Antolatzen parte hartu nahi dutenak bilera batera deitu dituzte, gaur, 20:00etan, kultur etxean.

Iker Karrera, Reunion irlako 'Eroen Diagonala' proban

AMEZKETA > Iker Karrera ultratrailletako korrikalariak beste proba gogor batean parte hartuko du. Madagaskar irlaren ondoan dagoen Reunion irlako Eroen Diagonala izeneko lasterketan, hain zuzen. Gaur hasiko da proba eta 170 kilometro egin beharko dituzte, 10.800 metroko malda metatuarekin.

Bidegoian eta Caracas, elkartuta

Bidegoiango Reviglass enpresak egin du beirazko mosaikoen munduko mural handiena

Imanol Garcia Landa Bidegoian

Bidegoian eta Caracas nolabaite lotuta daude. Venezuelako hiriburuan orain berri jarri dute beirazko mosaikoekin egindako munduko mural handiena, eta mosaiko horiek Bidegoiango Reviglass enpresan egin dituzte. Muralaren neurriak ez dira nolana nahikoak: bi zati ditu, bakoitza 1,5 kilometrokoa luzeran eta lau metrokoa altueran, guztira 12.000

metro karratu. Diseinua Mateo Manaure artista venezuelarrak eginikoa da eta *Uracoa* izena jarri dio, bere jaioterriaren izen bera.

Lana Caracasko Libertadores etorbidean jarri dute, zati bakoitza alde banatan. Ainara Ugartemendia Reviglass enpresako esportazio departamenduko kideak azaldu duenez, «Mateo Manaure artistak bere lan bat Libertadores etorbidean jarri nahi zuen. Material egokiena begiratzaren aritu ziren eta erabaki zuten gure mosaikoa jarzea. Trafiko handiko bidea da, eta mosaikoa erraza da garbitzeko».

Artelana mosaiko bihurtzea ez da, baina, hain erraza izan. «Gure mosaikoen koloreak egokitu behar izan ditugu artistak eskatzen

zuenera», esan du Ugartemendia. Proiektu berezia dela gaineratu du: «Lan handiak egin ditugu, baina aurretik horrelako proiektuak ez genituen egin».

Reviglass enpresan egin duten mosaikoaren lehenengo funtzioa igarilekuetarako zen. «Ondoren dekoraziorako ere erabiltzen hasi zen, hau da, bainugeletan, sukaldetan, fatxadak ere egiteko...», zehaztu du Ugartemendia. «Orain erakutsi da horrelako lan handiak egiteko ere baliagarria dela mosaikoa».

20 milioi mosaiko

Mosaiko bakoitzak 2,5x2,5 zentimetro ditu, beraz, 20 milioi ale inguru jarri dira, baina ez banan banan. «Hori egitea erokeria bat izango litzateke. Mosaikoez osatutako panelak jarri dira», esan du Ugartemendia.

PDVESA La Estancia izan da proiektua egitea bultzatu duena eta horrek VIU Urbana enpresari eman zion lana egiteko ardura. Hain justu, lana egiteko enargua azken honetatik iritsi zitzaion Reviglassi. «Enpresa horrekin aurretik harremana genuen eta beraiek eman dute aurrera han proiektua», dio Ugartemendia. «Guk ez dugu harreman zuzenik izan artistarekin, VIU Urbanakoak arduratu dira horretaz». Obrak gauez egin dira,

eta Libertadores etorbidea itxi egin dute horretarako. Uztailean hasi ziren lana egiten eta irailaren 29an inauguratu zuten.

Orain arte egin duten lan handiena da, baina tamaina handiko beste lan batzuk ere egin dituzte Reviglass enpresan. Esaterako, egun Ekuatore Gineako ospitale bate-

Muralak bi zati ditu, bakoitzak lau metroko altuera eta 1,5 kilometroko luzera ditu

Mateo Manaure artista venezuelarrak egindako diseinua jaso du muralak

ko fatxada eta barrukoak egiten ari dira. Izan ere, 60 herrialdetara bidaltzen ditu bere produktuak Bidegoiango enpresak.

Caracasko mural horrek atek ireki ahalko dizkie beste lan batzuk egin ahal izateko, baina Ugartemendia beste eragin bat ere nabarmendu du: «Jende askok ez du pentsatzen produktu hori hemen egin dagoenik eta enpresa Bidegoian dagoenik. Proiektu honek balio dezake jendeak jakiteko hemen gaudela eta zein den egiten dugun produktua».

Aiert Beobide • Haatik dantza konpainiako kidea

Alurr dantza taldeko irakasleak, 'Errimak oinetan' lan berria aurkeztuko du, Haatik konpainiarekin, bihar, Tolosako Leidor aretoan; bertsoarritza eta dantza uztartzen ditu emanaldiak.

«Ikuskizunak bertso saioa irudikatzen du»

Iñigo Terradillos Tolosa

Aiert Beobide donostiara duela hiru urte hasi zen eskolak ematen Ibarrako Alurr dantza taldean. Eskarmendu handia du dantzaren munduan: Aurreku txapelketa ugari irabazi ditu, Aukeran konpainian aritu da dantzari eta koreografo moduan, eta egun, Haatik izeneko bere konpainia sortu du. Haatik taldearekin, hain zuzen, bihar ariko da Tolosako Leidor aretoan, 20:30etik aurrera. *Errimak oinetan* izeneko lan berria aurkeztuko du.

Nolako emanaldia da bihar eskainiko duzuen?

Bertso saio bat du oinarrian dantza saioak, eta bertsoarritza erabiltzen du bide bezala. Bertsoari erabiltzen duten estetika guzuzera, dantzara ekarri dugu.

Nondik sortu zen bertsoarritza eta dantza uztartzeko ideia?

Unai Elizasu bertsoariak hainbat lan egin ditu bertsoa hainbat disziplinearekin uztartuz. Kasu honetan, bertsoa eta dantza uztartzearekin ideia hau izan zuen, eta aurkeztu egin zigun. Hasieran, txundituta geratu ginen, baina pixkana forma ematen hasi ginen ideari, eta emaitza asko gustatu zaigu.

Nola dago osatuta ikuskizuna?

Bertso saio baten ohiko atalak ikusi ahal dira *Errimak oinetan* emanaldian. Dantzariok bertsoari papera egiten dugu, eta gai jartzaileak ere badugu. Honek, off ahotsean, gu banan bana aurkeztu gaitu lehendabizi, bertso saioetan egiten den moduan. Orduan, guk gure agurra edo sarreratxoak egiten dugu. Ondoren, gai jartzaileak bertsoariak eta gaiak esaten



HITZA

ditu, eta dagokionak bere lana egin behar du.

Gai jartzaileak proposatzen duen gaiaren arabera da, beraz, zuen dantza.

Bai. Lan honek eman digu aukera mezua aukeratzeko joateko, hau da, zertaz hitz egin nahi dugun aukera dezakegu. Gai jartzaileak proposatzen duen gaiaren arabera, eszena desberdinak ditugu, eta dantza bat edo beste egiten dugu.


Zer moduzko erantzuna izan du lanak?

Emanaldiaren nondik norakoak ezagutu arren, jendea txundituta geratzen da. Saiok bukatzean ez zutela horrelakorik espero esaten digute. Sentsazio onarekin geratzen dira, baina, hori bai, harriritu. Bestalde, emanaldian zehar

sentimendu desberdinak adieraztea lortzen dugula nabari dugu. Gai jartzaileak proposaturiko gaia tristea, umoretsua edota gatazkatsua izan daiteke, eta orduan, sentimendu horiek transmititu behar ditu dantzak ere, eta hori lortzen dugula dirudi.

Hirugarren urtea duzu irakasle eta koreografo moduan Ibarrako Alurr dantza taldean. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Oso ona, oso gustura nago. Dantza irakasle eta dantzaren sormenean aukera paregabea eman dit Alurrek. Hiru urtetan bi ikuskizun egin ditugu, eta horiek egiteko babes handia jaso dut taldeko kideengatik. Gauza desberdinak egiteko gogoz daude beti, langileak dira, eta seriotasun handiarekin egiten dute lan, gainera.



Iragan asteburuan Lapurdiko Luhuso herrian izan zen Ibarrako taldea. HITZA

Ibarrako Alurr dantza taldeak ekin dio ikasturte berriari

Iazko ikasturte talde kopurua mantendu du; Azpeitian eskainiko dute ikuskizun berria, datorren astean

talde aritzen dira egunero; eta astean egun batez, 13-14 urteko neska-mutilen talde bat, inguruko herrietako 15-16 urtekoen talde bat eta 10 urtetik gorako mutilen osaturiko beste talde bat.

Emanaldiak, han eta hemen

Bestalde, Alurr dantza taldeko kideek ikasitako jendaurrean erakusteko aukera izaten dute urtean zehar eskaintzen dituzten hamaika emanaldietan.

Iragan ostiralean, esaterako, Luhuson (Lapurdi) izan ziren, bertako Harri Xuri aretoan. Taldeko 16 dantzarik *Soinaz* ikuskizuneko zati bat aurkeztu zuten. Aiert Beobide da lan honen zuzendaria, eta Oreka TX taldearekin lan batzuk egin ondoren sortu zuten. Estilo desberdinako dantzak uztartzen ditu, beti ere euskal dantzetan eta euskal pausuetan oinarrituta. Jende ugari bildu zen Harri Xuri aretoan, eta Alurr taldeko dantzariak beste dantza talde batzuekin ere aritu ziren.

Aiert Beobidek Alurr taldearen bi ikuskizun zuzendu ditu orain arte, *Oimazez* eta *Izanak dirau, 1512*. Hain zuzen ere, Alurr dantza taldeak *Izanak dirau, 1512* ikuskizun berria aurkeztuko du Azpeitian urriaren 28an, eta Usubilen, azaroaren 10ean.

I. Terradillos Ibarra

Hasi da ikasturte berria Ibarrako Alurr dantza taldearentzat. Emanaldiak jarraitzen dute, urte osoan bezala, eta gazteak dantzarekin trebatzeko eskolei hasiera eman diete.

Aurreko ikasturteekin alderatuta, ezin esan daiteke krisia gehiegi nabaritu denik, taldeen kopurua mantendu egin baita. Eli Nosellas dantza taldearen arduradunaren esanetan, «dantza eskola soiletik haratago proiektu bezala ikusten duelako jendeak Alurr izan daiteke hori». «Dantzaren inguruan baloreak irakasten ditugu, eta hori, batik bat, gazteentzat oso garrantzitsua da», dio Nosellasek. Era berean, «gure kulturaren zati baten etorkizuna ziurtatzea ere» ezinbestekotzat jotzen du.

Taldee dagokienez, Aiert Beobide dantzari eta koreografoak zuzentzen dituen bost talde dauka 13 urtetik gorakoei zuzenduko. 4 urtetik 12 urtera bitarteko lau



Zizurkilgo jaietan herritarrek armarrri berriaren inguruko ekarpenak egiteko aukera izan zuten. A. IMAZ

Bi hilabeteko epean Zizurkilek armarrri berria edukiko du

Hamar proposamen daude egun mahai ganean; zizurkildarrek euren ekarpenak egin zituzten herriko jaietan

Asier Imaz Zizurkil

Belateko gudaren 500. urteurrena abenduan izango da, eta ordurako, zizurkildarrek armarrri berria erabakita izan nahi dute. Udaletxean bilkura berezia egingo dute bi hilabete barru, herritarren artean erabakitako armarrri berriari argi berdea emateko. Bien bitartean, zizurkildarrek lanean jarraitzen dute, azken proposamenak aztertuz eta eztabaidatuz.

Bi urteko ibilbidean herritarrek izan dira protagonista, eta koordinazio lanetan hogeitazizurkildarrek osaturiko taldea aritu da. Joxin Azkue tartean dago: «Hitzaldiak, mahai inguruak, bilera, eta abar egin ditugu, eta behin armarrria aldatzeko erabakia hartu zenean, herri mailako bilera zabal bat deitu genuen, hortik sortu zen hogeitazizurkilgo lantaldea».

Prozesua hasi besterik ez zen egin, ordea, armarrria aldatzeko erabakia beste erabaki baten beharra ekarri zuen, nolakoa izango da berria? Joxin Azkuek ongi gogoratzen du bilaketa hori nola hasi zen: «Ideiak eta iritziak bota-

tzen hasi zen jendea. Guztien artean hausnarketa egin eta irizpideak zehaztu genituen; zer egon beharko lukeen armarrrian edo zer ez». Ideiak zirriborro bilakatu ziren, eta zirriborroak proposamenak. Bakantze lan horretan hamar aukera gelditu ziren mahai ganean. Abuztuaren hasierarako prest zeuden, eta Zizurkil Goiko eta Beheko festetan kalera atera zituzten, herritarren ekarpenak, eta ez botoak, biltzeko helburuarekin: «Gure asmoa 80 ekarpen lortzea zen, eta 200dik gora jaso genituen. Oso gustura gelditu ginen».

Aranzadiren, hogeiko taldearen eta herritarren ekarpenak hartu dituzte kontuan

Hamar armarrri horien inguruko proposamenak bildu ondoren, Aranzadikoekin elkartu dira zizurkildarrek, ibilbide honetan zehar, zientzia elkarteak laguntzaile eta aholkulari izan baitute. Prozesu hau aurrera ateratzeko uanean, hain zuzen ere, hiru hanka zehazten ditu Joxin Azkuek: «Hogeiko

lantaldea, zizurkildarrak eta Aranzadi zientzia elkarteak». Guztien iritziak kontuan hartu ondoren, hamar zenbakia batean geldituko dela dio: «Ziurrenik armarrri berria ez da izango hamar horietako bat. Guztien ekarpenak kontuan hartu ondoren, ziurrenik hamar horietatik berri bat aterako da; hamar horien bilakera izango da, bataren eta bestearen elementuak izango dituen».

Armarrri berriaren beharra

Zizurkilgo egungo armarrrian Belateko guda gogoratzen duten kanoi batzuk daude. Duela 500 urteko gertaera hartan, Gaztelako tropek nafar independentistei kendu zizkien kanoi hauek. Gipuzkoarrak garai hartan, Gaztelako tropen ondoan ari ziren borrokan. Joxin Azkueren esanetan, anaien arteko borroka islatzen dute armarrriko kanoiek, eta ondorioz, «herriko leku ohoretuenean gure independentziaren aurkako gerra sinbolo bat dago». Hori aldatu nahiak sortu zuen armarrri berriaren beharra zizurkildarren artean.

Gipuzkoako armarrrian kanoi horiek zeudela gogoratzen du Azkuek, 1979. urtera bitarte: «Orduan ere, armarrria aldatzea erabaki zen, eta garai hartan aldundian zeuden alderdi guztiek, proposamen horren aldeko jarre-razaldu zuten».

Joxin Azkue •

Teodoro Hernandorena kultur taldeko kidea

«Herri mailan adostutako zerbait izatea nahi dugu»

A. Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Teodoro Hernandorena kultur taldeak gertutik jarraitu du armarrri berriaren prozesua: sustatuz eta lana eginaz. Joxin Azkue (Azpeitia, 1952) taldeko kidea da. 32 urte inguru daramatza Zizurkilen bizitzen, eta lan eskerga egiten ari da herri honen ondarea berreskuratu eta bildu nahian, Teodoro Hernandorena kultur taldeko kideekin batera.

Zizurkildarrek hitz egitean, gauza bat argi gelditzen da: ideia ugari dituen pertsona izateaz gain, lanari eta konpromisoari beldurrik ez dion horietakoa dela. **Teodoro Hernandorenatik horrenbesteko lana martxan jarzea, zerbait erabaki zenuten?**

Historia eta etnografiaren inguruan lan egiten dugun herri mailako talde ireki bat gara. Hilean bi bider elkartzen gara, arratsaldetan, eta hor egiten ditugu gure lanak, eta gure hausnarketak. Urtean zehar hainbat lan txiki egiten ditugu, herriko gauzeekin etxetxe orriak banatu eta abar. Gero, urtean behin, gai potolo bat hartzen dugu, eta aurrean armarrriaren gaia tokatzen da.

Zeintzuk izan dira azken urteetako gai potoloak?

Duela bi Otañoren inguruko guztia bultzatu genuen, eta laz, oroi-men historikoaren gaia landu genuen. Herri guztietan daude horrelako talde saltseroak. Gai horiek sustatzeaz gain, urtean zehar lan txikiak egiten jarraitzen dugu. Orain, adibidez, Elbarrenako industrializazioari buruz lan bat egiten ari gara. Egiten dugun guztia, beti, herriko historia eta etnografiaren inguruan egiten dugu.

Armarrri berria, armarrri batek herri batentzat esan nahi duen guztiagatik, ez al da gai potolo bat baina zerbait gehiago?

Hasieratik argi eta garbi izan dugu gaia oso serioa zela. Denbora asko daramagu armarrriaren gaiarekin, eta jakingo bazenu zenbat bilera, hausnarketa, mahai inguru, hitzaldi... antolatutugun. Prozesu guzti horrekin ere liburuxka bat atera nahi dugu, Aranzadik egin duen memorian oinarrituta; ondoren, herriko postontzi guztietan banatuko dugu. Parte hartzea bultzatzen ibili gara hasiera hasieratik, guzti honen ezin baitu izan hiru zelebren kontua, herri mailan adostutako zerbait baizik.

Alderdi politikoei hitz egin al duzue?

Ezertan hasi aurretik, inongo pausorik eman aurretik, Zizurkil ordezkaritza duten alderdi guztiekin hitz egin genuen. Gure asmoa azaldu genien, eta herritarren artean atera nahi genuela aurrera, inongo alderdiren kontua izan ez zedin. Herri mailan uste dut, nahiko onartuta dagoela aldatzeko garai egokia dela oraingoa.

Bi urte inguruko prozesua amaitzean aurkitzen da. Dagoeneko buruan izango duzu Zizurkilgo armarrri berria, ezta?

Modernoia izatea nahi dugu; funtzionala; aurrera begirakoa eta izadia eta gure historia kontuan hartuko dituen. Nik uste lortuko dugula, eta ez nik bakarrik. Herriko jaietan aurkeztu genituen hamar aukera horietako bost edo sei nahiko antzekoak direla ikusten da, beraz, ideiak nahiko argi ditugun seinale da hori.



Iñigo Errazkin anoetarra baserriko esnea dendaz denda eta etxez etxe saltzen hasi da, eskualdean; produktuaren alde onak eta ez hain onak zeintzuk diren azaldu du.

Ohitura zaharrak berrituz

Asier Imaz

Baserriko esnea entzuten dugunean, askoren oroitzapenak haurtzarora egiten dute ihes: «Baserriko esnearekin hezitakoa naiz ni». Esne saltzailea, gertutasuna, marmitak, zaporea... Kolpean pilatzen diren oroitzapenak.

Iñigo Errazkin anoetarra baserriko esnearekin hezi zen. Anoetako esnezalea ongi gogoratzen du oraindik: «Baserritik esne jetzi berriarekin etortzen zen egunero, eta etxeko ate ondoan uzten zuen esnea». Denborarekin, hutsune hori betetzeari tokatu zaió Errazkini, Añoi baserriko esnea etxez etxe eta dendaz denda salduaz: «Errezilgo Añoi baserrian esne jetzi berria hartu, eta Tolosaldean banatzen dut».

Garaiak eta legeak ez dira alferrik aldatu, eta denera egokitu behar dela esaten denez, baserriko esnari ere hainbat baldintza betetzea tokatu zaió anoetar gazteak: «Legea aldatuz joan da, eta berak aipatzen dituen osasun neurriak hartu ezean, esnea ezin da atez ate saldu, tratamendu bat jasan behar du horretarako». Pasteurizazioa, hori da Añoi baserriko esnearen sekretua eta tratamendua. Errazkinen esanetan, jetzi orduko pasteurizatu egiten dute esnea, bere propietate eta osagai guztiak mantenduz: «Esne guztiak egosaldi bat jasan behar izaten dute. Baserrian, jetzi

eta berehala, sukaldean egosten zuten esnea gure amonek, bakteriak eta abar kentzeko. Tetra Brik-eko esneak denbora luzerako balio du, eta horretarako, tenperatura gogorretan jasaten du egosaldia. Prozesu horretan, propietate batzuk galtzen ditu. Añoi baserriko esnearen kasuan, propietateak mantentzeko egosaldi finagoa ematen zaió. Horren ondorioz, iraupena ez da hain epe luzekoa, jetzi eta sei egunera kontsumitu behar baita».

Andoainen hasi zen merkatua zabaltzen Iñigo Errazkin, duela hiru aste. Ondoren, Zizurkil, Astearu eta Villabonari heldu zion: «Asteak zazpi egun ditu, eta banatzeko ongi antolatu behar da. Merkatari txikiek eta norbanakoekin sare bat egin nahi dut eskualde guztian. Nire hasierako asmoa, banaketa astean bi egunetan egitea da. Alde batetik, denda eta harategietara eramango dut, eta bestetik, etxez etxe ibiliko naiz bezeroei banatzen».

Orain arte izan duen harreraren inguruan galdetuta, merkataria eta norbanakoak bereizten ditu: «Merkatarien aldetik kezka prezioak sortu du. Esnearen merkatua oso gaizki dago, gutxi baloratuturik baitago. Nire ustez, hala eta guztiz ere, elikagai onak kontsumitzea beharrezkoa da, eta ahalegin bat egin beharra dago gauzei bere balioa eta balorea ematerako unean. Norbanakoen aldetik, batzuei zaporea gogorra



Iñigo Errazkin anoetarra, Añoi baserriko esnea ondoan duela. A. IMAZ

egin zaie, eta besteei, asko gustatu zaie; faltan botatzen zuela esan duenik ere izan da».

Kostata baina bidea egiten ari dela dio Errazkin, nahiz eta esnearen merkatua «oso saturaturik» egon: «Baserriko esnearen merkatua ez dago hain itoa, baina bai, oro har, esnearena, enpresa piloa baitago». Merkatu honen barruan, merkatu berri bat irekitzeko helburua duela dio anoetar gazteak, usadio zaharrak berrietzeko asmoz.

«Sukaldatzeko oso egokia»

Añoi baserriko esnea litro bateko neurrian saltzen du Iñigo Errazkin, plastikozko edukiontzi batean. Esnezale gaztearen esanetan, pitxar batean sartu eta oso erabilgarria suertatzen da edukiontzi mota hau: «osasun baldintza eta baimen guztien agiria edukiontzian dago, baita iraungipen data ere», gaineratzen du anoetarrak.

Onurak azpimarratuz jarraitzeko ez du erreparorik Errazkin, ziur baitago esnearen ga-

rrantziak, hala eta guztiz ere, jakitun da mugak ere badituela: «Esnea onuragarria da denentzat, bai umeen garapenerako eta baita helduen osasunerako ere, gure organismoarentzat funtsezkoa dela esango nuke, kaltzioa bezalako osagaiak dituelako. Añoi esnearen kasuan, baserriko behiek ekoiztiko esnea da, besterik gabe edateko edo sukaldatzeko. Postreak, kroketak... egiteko adibidez, oso egokia da. Bestalde, horrelako esnera oihutu gabe gaudela, eta egia da, tabernetako eba-

kietarako adibidez, gogorregia suertatu daitekeela». Produktuaren gakoa, hemen kokatzen du Errazkin, fideltasunean: «Ohitzen denak ez du aldatu nahi izaten, gustura edaten du, ondorioz, jendea horixe eskatuko nioke, probatzea». Litroaren prezioa 1,10 eurokoa da: «Dendan erosi edo etxean jaso, prezio berdina da». Esne banatzailearekin kontaktuan jartzeko, 645 72 38 77 telefono zenbakira deitu, edo ainoia-kobanaketa@gmail.com helbidera idatzi behar da.



Plastikozko edukiontzian banatzen dira; litro bat esne. A. IMAZ

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	17°
HOTZENA	13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Kasino elkarteak antolatutako Mikologia Astearen barruan gaur, 18:20ean, hitzaldia, Zerkausian, Mirador de Ulia jatetxeko sukaldari Ruben Trincadoren eskutik.
- **Tolosa.** Iurre elkarteak larunbaterako antolatutako bertso afarirako txartelak eskuratzeko 680 27 35 83 (Alex Perurena) telefonora deitu behar da.
- **Alegialdea eta Tolosa.** Nafarroa Oinez jaia urriaren 21ean izango da, Zizur Txikian, eta autobusa antolatu dute Alegialdean eta Tolosan. Alegialdeko autobusak Amezketa, Alegian eta Ikaztegiaren egingo ditu geldialdiak. Izena Abaltzisketa, Altzo, Alegia, Amezketa, Orendain, Baliarain eta Ikaztegiatara udaletxeetan eman behar da, eta gaur da azken eguna. Helduek 10 euro ordaindu behar dute eta ikasle eta langabetuek 7 euro. Tolosan Galtzaundi euskara taldeak antolatu du autobusa. Izena Galtzaundiren egoitzan eman behar da, eta bazkideek 10 euro ordaindu behar dute eta besteek, 12 euro.
- **Ibarra.** Beheko Bideko erabilera anitzeko eraikinean gazteenzat egiten ari diren etxebizitzak banatzeko azterketa burutu nahi du udalak. Galdetegia 18 eta 35 urte arteko gazteek bete behar dute, urriaren 31 baino lehen entregatu behar da, eta orria udaletxean, kultur etxean nahiz sarean (ibarrakoudala.net) eskuratu daiteke. Zalantzak argitzeko batzarra egingo dutela ere argitu dute: urriaren 23an egingo dute, kultur etxean, 19:30ean.
- **Altzo.** Altzo Muñon egingo dituzten 12 etxebizitza tasatuetan

izena emateko aukera dago jada. Udaletxera jo behar da edo 943 65 24 13 telefono zenbakira deitu.

■ **Tolosaldea.** Tolosaldea Ikastn-ek elikagaien manipulatzaile txartela eskuratzeko ikastaroa antolatu du urriaren 22 eta 23rako. Eskolak 16:00etatik 19:30era izango dira. Izen ematea irekita dago jada, Tolosaldea Ikastn-en.

JAIK

■ **Tolosa.** San Esteban auzoko jaien barruan, gaur, 19:00etan patata tortilla txapelketa, eta ondoren, afari merienda; 22:30ean, antzerkia: *La verdadera historia de Lola Puñales*, La Patro Teatro taldearen eskutik, eta La Pulga flamenko dantzariaren parte hartzearekin.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Zine forumaren barruan, gaur, 19:15ean eta 21:45ean *Casa de tolerancia* jatorrizko bertsoan.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Box.A elkartearen *Pornografía*, Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren txotxongilariaren lanak, Topic zentroan.
- **Alegia.** Jose Enrike Zeberioaren margolanak ikusi daitezke erretridunen tabernan.
- **Ibarra.** Kultur etxean San Bartolome jaietako argazkiak bildu dituzte eta urriaren 31a arte ikusi ahal izango da, 10:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:30era.

Irudia Ibarra



JAIETAKO ARGAZKIEN ERAKUSKETA

Urteroko moduan, Ibarra kultur etxean 2012 urteko San Bartolome jaietako argazki erakusketa jarri dute. Kultura sailak 850 argazki inguruko bilduma osatu du pasa diren jaietan hartutako irudiekin eta horietatik 450 inguru ikusi daitezke atzotik, kultur etxean. Nahi duenak argazkien ko-

pia ere eskatu ditzake, eta kopia bakoitzeko kostua 0,50 euro izango da. Argazkien kopia kultur etxeko harreran eskatu behar dira. Erakusketa urriaren 31 bitartean ikusi ahal da goizetan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30era, arratsaldean. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!

Maria Esnaola (Lizartza). Gaur 97 urte. Ondo pasa eta urte askoan! Segi horrela. Muxu bat familia guztiaren partetik.



Zorionak!

Josefa Galarza Goñi (Amezketan). Gaur 105 urte! Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

AGURRAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

●● agurrak

Bertako informazioari bertako produktuak



Egin HITZAren harpidedun irailaren 3tik urriaren 26ra eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, OPARI

Hitzaren harpidedunen artean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia zozkatuko dugu



Artizano nekazkariaren Zimurga, 46 HONDARRIBA (Gipuzkoa)
Tel: 943 642 337 / 655 721 834
www.rekatur.net/artizano

haztegiaren artean:

902 82 02 01: haztegiak@hitza.info

hitza info